



**BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA**  
**FEDERACIÓN VIZCAINA DE FÚTBOL**

2020/2021 denboraldia

**2. ZIRKULARRA**

**KORONABIRUS PROTOKOLOA**

Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-agintariek ezarritakoaren arabera, eta COVID-19ren prebentzioari buruz indarrean dagoen araudia oinarri hartuta, Euskadiko Futbol Federazioak, dagozkion erakundeen onespenearekin batera, protokolo bat argitaratu du sarbideetako eta/edo lehiaketetako babesari eta prebentzioari buruz.

Bizkaiko Futbol Federakundeak aipatutako Protokoloa igorri du bere kideen artean, eta NAHITAEZ bete behar da entrenamenduak hasteko.

<https://fvf-bff.org/doc/noticias/Protocolo%20definitivo.pdf>

Kluben ardura izango da futbolariei, teknikariei, laguntzaileei eta partidetan edo entrenamenduetan parte hartzen duten klubeko pertsona guztiei helaraztea, baita ikusleei ere, partidak jendaurrean egiten badituzte.

Lurralde mailako klubek **NAHITAEZ** bidali beharko diote Bizkaiko Futbol Federakunde honi entrenamenduei hasiera emateko **1. ERANSKINA** (Protokoloa betetzen dela adieraztea eta klubaren arduraduna izendatzea).

**2. ETA 3. ERANSKINAK** behin bakarrik bete beharko dira denboraldiko lehen entrenamendua baino lehen, eta eguneratu egin beharko dira plantillan aldaketarik egonez gero. Taldearen arduradunak klubeko Protokoloaren arduradunari eman behar dio.

Protokoloari buruzko edozein zalantza argitzeko, FVF-BFFren intraneta erabili beharko dute horiek ebazteko.

Egun indarrean dagoen protokoloa aldatu ahal izango da Erkidegoko osasun- eta kirol-agintariak adierazten duten heinean. Hori dela eta, edozein aldaketa behar bezala jakinaraziko da.

Horren berri ematen da, jende guztiak jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Bilbo, 2020ko irailaren 11

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'José Ignacio Gómez Mardones', written over a horizontal line.

**JOSÉ IGNACIO GÓMEZ MARDONES**  
Presidentea

**PROTOKOLOA, ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN SARS-COV-2REN (COVID-19) AURREAN OSASUNA BABESTEARI ETA PREBENITZEARI BURUZKOA.**

**1. Eranskina. Protokoloa betetzeari buruzko adierazpena eta klubeko arduraduna izendatzea.**

Kluba: \_\_\_\_\_

Jaun / Andre agurgarria:

Honen bidez, eta \_\_\_\_\_ Klubaren  
\_\_\_\_\_ gisa, egoitza soziala  
\_\_\_\_\_Kalean, zk. \_\_\_\_\_,

**ZIURTATZEN DUT**

\_\_\_\_\_ Jauna/andrea izendatzea, adin nagusikoa eta  
...\_\_\_\_\_ NAN zenbakia duena, gure klubak entrenamenduetara eta  
lehiaketetara itzultzeko protokoloa betetzearen arduradun gisa. Era berean, Bizkaiko Futbol  
Federakundeak ezarritako osasun-segurtasuneko protokoloa betetzeko, harremanetarako datu  
hauek ezarri dira:

Izena: \_\_\_\_\_

Emaila: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Posta Helbidea: \_\_\_\_\_

Nire izenean eta ordezkatzan klubaren izenean, Protokolo horretan ezarritako  
entrenamendu, ekitaldi eta partidetan COVID-19ren prebentzioari buruz indarrean dauden  
neurri guztiak betetzearen erantzule egiten naiz, horrela, Bizkaiko Futbol Federazioak  
antolatutako lehiaketetan parte hartu ahal izateko, eta nik ematen diot izendatutako pertsonari  
gure kluba ordezkatzeko baimena.

Eta horrela jasota gera dadin, dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut  
\_\_\_\_\_ (e) (a) n. 2020ko \_\_\_\_\_ aren  
\_\_\_\_\_a.

Klubaren sinadura eta zigilua:



## PROTOCOLO RELATIVO A LA PROTECCION Y PREVENCION DE LA SALUD FRENTE AL SARS-COV-2 (COVID-19) EN ENTRENAMIENTOS Y/O COMPETICIONES.

### 3. Eranskina. Ebaluazio-Galdetegia

Dokumentu hau talde bakoitzaren lehen entrenamendua hasi aurretik bete beharko da, eta Klubeko protokoloaren arduradunari entregatu.

Izen-Abizenak	
NAN	
Posta elektronikoa	
Harremanetarako telefonoa	

#### Sintomak baztertzeko Galdetegia:

Sukarra(37°C-tik gorako tenperatura) azken 5 egunetan	Bai	Ez
Eztul lehorra (azken 14 egunetan)	Bai	Ez
Eztarriko mina/azkura (azken 14 egunetan)	Bai	Ez
Arnasa hartzeko zailtasuna, bularreko zapalkuntza (azken 14 egunak)	Bai	Ez
Lesio biolazeoak oinetan eta/edo eskuetan, larruazaleko erupzioak edo urtikaria (azken 14 egunak)	Bai	Ez
Giharretako edo artikulazioetako min ezohikoak (azken 14 egunetan)	Bai	Ez
Beherakoa eta/edo gorakoak (azken 14 egunetan)	Bai	Ez
Buruko min handia (azken 14 egunetan)	Bai	Ez
Dastamena eta usaimena galtzea (azken 14 egunetan)	Bai	Ez
Harreman estua izan duzu (ikastetxean, lanean, familian edo lagunekin) Covid-19an positibo eman duen norbaitekin?	Bai	Ez
Bere eguneroko ingurune hurbilenean kontaktu estua (15 minutu baino gehiago 2 metro baino gutxiagora) izan duen norbait dago, duela gutxi hasi dela arnas sintomekin edo sukarrarekin?	Bai	Ez
Azken 48 orduetan egin al duzu Koronabirus -probarik?	Bai	Ez
Emaitza:	Pos.	Neg.

Galdetegi hau irakurri eta erantzun ondoren, kirolariak/entrenatzaileak honako hau adierazi du:

- a. Emandako erantzun guztiak egiazkoak eta zuzenak dira.
- b. Jakina da egiarekin bat ez datorren erantzun orok ondorio larriak izan ditzakeela bere osasunean eta ingurukoenean.
- c. Jardueraren aurretik, bitartean eta ondoren, bere osasun-egoera aldatzen duen edozein gorabeheraren berri emango die bere klubari eta bere Federazioari.

\_\_\_\_\_ (e) n, 2020ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_ (e) (a) n.

Izpta.: kirolaria/entrenatzailea, aita/ama/tutorea (adingabeak badira)

#### **Datuen babesa:**

Kirolariak/entrenatzaileak eta bere gurasoek (adingabeak izanez gero) berriaz baimentzen diote klubari datu biometrikoak eskatu, erabili eta tratatu ahal izateko (tenperatura, PCR eta test probak, eztul eta sintomen gaineko aplikazioak, etab.). Horiek COVID19 sintomak garatzen ari ez direla eta gaixotasunaren eramaileak ez direla egiaztatzeko baino ez dira erabiliko, eta gai horretan eskumena duten osasun-agintariei soilik eman eta jakinarazi ahal izango zaizkie, kutsatze berriak prebenitzeko. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezartzen dituen parametroekin eta jarraibideekin bat etorritik, hala badagokio, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezereztzeko, aurka egiteko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, klubaren egoitza sozialera jakinarazpen bat bidalita, NANaren kopiarekin batera. Kirol-jarduera egiten den bitartean gordeko dira datuak, eta osasun-agintariei eskatu ahal izango dituzte.